

XEDAPEN OROKORRAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

883

14/2026 DEKRETUA, otsailaren 10ekoa, nekazaritza-ustiatzei aholkularitza emateko entitateena, eta horien aitortza eta erregistroarena.

Kontseiluaren 2003ko irailaren 29ko (EE) 1782/2003 Erregelamenduaren bidez, nekazaritza-politika erkidearen esparruan zuzeneko laguntzen araubideei aplikatu beharreko xedapen komunak eta nekazari-entzako laguntza-araubide jakin batzuk ezarri eta honako hauek aldatzen dira: (EEE) 2019/93 Erregelamendua, (EE) 1452/2001 Erregelamendua, (EE) 1453/2001 Erregelamendua, (EE) 1454/2001 Erregelamendua, (EE) 1868/94 Erregelamendua, (EE) 1251/1999 Erregelamendua, (EE) 1254/1999 Erregelamendua, (EE) 1673/2000 Erregelamendua, (EEE) 2358/71 Erregelamendua eta (EE) 2529/2001 Erregelamendua; eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko (EE) 817/2004 Erregelamenduak NBBEF Nekazaritza Bideratu eta Bermatzeko Europako Funtsaren konturako landa-garapenerako laguntzari buruzko Kontseiluaren (EE) 1257/1999 Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen ditu. Hala, (EE) 1782/2003 eta (EE) 817/2004 erregelamenduen bidez, Europar Batasunak xedatu zuen estatu kideetako agintari eskudunek sistema bat ezarri behar zutela nekazari-entz lurren eta ustiatzei kudeaketari buruzko aholkuak emateko, eta sistema horrek agintaritza izendatu baten edo batzuen edo organismo pribatuen ardurapean egon behar zuela. Era berean, aholkularitza-zerbitzuak emango zituzten entitateek izan beharko zituzten baliabide materialak eta giza baliabideak, esperientzia eta fidagarritasuna ezarri zituen, eta estatu kideei askatasuna eman zien horretarako prozedura ezartzeko.

Agindu hori betez, nekazaritza-ustiatzei aholkuak emateko erakundeei buruzko 2006ko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua onartu eta argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoan. Dekretu horretan ezarri ziren bai zer baldintza bete behar zituzten Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiatzei aholkuak emateko zerbitzuek eta bai aholkularitza-zerbitzuak ematen dituzten entitate pribatuen aitortza, eta, horretarako, «Nekazaritza Ustiatzei Aholkularitza emateko Erakundeak Euskal Erregistroa» sortu zen.

Ondoren, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 2008ko abenduaren 23ko 17/2008 Legeak honako hau xedatu zuen 91. artikuluan: «Nekazaritza-arloko euskal administrazioek laguntza eta bultzada emango diete, (...) nekazaritza-ustiatzei kudeaketa tekniko eta ekonomikoko zerbitzuak, titularren ordezte-zerbitzuak edota aholkularitza integrala ematen dizkieten erakundeei, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta nekazaritza-kooperatibak lehenetsita». Era berean, honako hau xedatu zuen: «Arauz sortu eta erregulatuko da erakunde horien errolda, bai eta erakunde horiek halakotzat aitortzeko prozedura ere».

Nekazaritza-politika erkidea (NPE) 2023-2027 aldirako erreformatuta, onetsi egin da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamendua, nekazaritza-politika erkidearen esparruan estatu kideek egin beharreko plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen dituen (NPEaren plan estrategikoak) –NBBEF Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren eta LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren kontura finantzatuta– eta (EB) 1305/2013 Erregelamendua eta (EB) 1307/2013 Erregelamendua indargabetzen dituen. Erregelamendu horrek esparru juridiko berri bat ezartzen du nekazaritza-politika erkiderako (NPE).

6. artikuluan, NPEaren zeharkako helburu gisa, aipatzen da nekazaritza eta landa-eremuak modernizatzea, ezagutza, berrikuntza eta digitalizazioa sustatuta eta amankomunean jarrita nekazaritza- eta landa-eremuetan, eta nekazariak horiek har ditzaten sustatuta, ikerkuntzarako sarbidea, berrikuntza, ezagutza-trukea eta prestakuntza hobetuz.

Erregelamendu horrek, 15. artikuluan, ustiategientzako aholkularitza-zerbitzuen gutxieneko ildo orokorrak jasotzen ditu, eta honako hau xedatzen du: ustiategientzako aholkularitza-zerbitzuek alderdi ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak hartu behar dituzte kontuan, eta ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetatik eratorritako informazio teknologiko eta zientifiko eguneratua eman behar dute, baita ondasun publikoen hornidurari dagokionez ere.

Halaber, xedatzen du ustiategientzako aholkularitza-zerbitzuen bidez laguntza egokia emango dela ustiategiaren garapen-zikloan zehar, hauek denak barne hartuta: hasierako ezarpena, ekoizpen-ereduak kontsumitzaileen eskarietara egokitzea, nekazaritza-jardunbideen arloko berrikuntza, klima-aldaketa-erakiko erresilientzia sustatzeko nekazaritza-teknikak (besteak beste, nekazaritzako basogintza eta agroekologia), animalien ongizatea hobetzea eta, behar izanez gero, segurtasuneko arauak eta gizarte-laguntza.

Aurrerago, 78. artikuluan, ezagutzak trukatzeko eta informazioa zabaltzeko laguntzak jasotzen ditu; laguntza horiek berrikuntza, prestakuntza eta aholkularitza sustatzeko egoki den edozein ekintzaren kostuak estal ditzakete, zerbitzuak ematen dituzten entitateen bitartez bideratuta.

Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren ustiategientzako aholkularitza-zerbitzuek, nahitaez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamenduaren 15. artikuluan jasotako alderdiak hartu behar dituzte. Zerbitzu horiek emateko, aintzat hartu beharko dira nekazaritza-ustiapeneko praktikak.

Hala, ustiategientzako aholkularitza-zerbitzuek hainbat ekoizpen motatara egokituta egon behar dute, nekazaritza-ustiategien eta landa-enpresen kudeaketa jasangarria eta errendimendu orokorra hobetzeko. Horretarako, ekonomiaren, ingurumenaren eta gizartearen dimentsioei heldu behar diete, eta NPEaren plan estrategikoetan ustiategiatarako aurreikusitako neurrietan egin beharreko hobekuntzak zehaztu behar dituzte (digitalizazioa barne).

Nekazaritza-ustiategiei ematen zaizkien aholkularitza-zerbitzuek nekazaritza-sisteman integratuta egon behar dute, nekazaritzako ezagutza- eta berrikuntza-sistemen bidez (AKIS, ingelesezko siglen arabera), eta ustiategien kudeatzaileak erdigunean jartzen eta ezagutza-fluxuak hobetzen saiatu, eragile ugariako ikuspegi interaktibo baten bidez. Ikuspegi horrek berrikuntza, digitalizazioa eta ezagutza trukatzeko bultzatzen ditu nekazaritza lehiakorragoa, adimenduna eta jasangarria izan dadin, eta ikerketari eta berrikuntzari esker garatutako informazio teknologiko eta zientifiko eguneratua eman ahal izateko.

Gainera, Europar Batasunak ezartzen du lehentasunezkoa eta beharrezkoa dela aholkularitza inpartziala izatea eta teknikari aholkulariak behar bezala kualifikatuta eta egoki trebatuta egotea eta interes gatazkarik ez izatea.

Euskal Autonomia Erkidegoan, ikerketa, esperimentazio eta transferentzia teknologikoetarako zerbitzuak oso hedatuta daude, eta horren erakusle da bi sektoreetan profesional kopurua handia dela.

Dena den, 2006ko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua egokitu egin behar da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamenduak aholkularitza-zerbitzuei dagokienez sartutako aldaketetara.

Hainbeste denez eguneratu behar dena, eta aldatu beharreko dekretua 2006. urtekoa denez, egokiena da 2006ko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua indargabetzea eta nekazaritza-ustiategientzako aholkularitza-sistema arautuko duen dekretu berri bat onartzea, NPEPE berriak sartutako araudi-aldaketetara, gizartearen eskarietara eta EAEko nekazaritza-administrazioen ekintza proaktibora egokituta.

Dekretu berri honetan, nekazaritza-ustiategientzako aholkularitza hobetu egiten da, eta aholku-parametro berriak sartzen dira, berrikuntza eta ezagutza-arlo berriak barne, eta horrek bide ematen du aholkularitzaren kalitatea hobetzeko eta irismena zabaltzeko. Horregatik, areagotu eta aldatu egiten dira eman beharreko aholkularitza-zerbitzuak, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamenduak nahitaezkozatzat jokoak sartu dira, indargabetu beharreko arauan jasotakoei dagokienez.

Era berean, aholkularitza-entitate izateko betekizun berriak sartu dira, gehienak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamenduak behartuta, eta aitortza eskatzeko prozedura berri bat ezarri da, zeina telematikoki egingo baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea betez.

Berritasun garrantzitsu gisa, eta aholkularitza emateko entitate gisa onartua izateko betekizun gisa, entitateei aholkularitza-plan orokor bat edukitzeko eskatzen zaie. Plan hori etengabe eta aldaketaren bat egin zaion aldiro eguneratu beharko da, eta Europako erregelamendu horretara egokitzeko bete beharreko alderdi eta parametro guztiak jasoko ditu, baita dekretu honetan exijitutako zerbitzu osagarriak ere. Horrez gain, funtsezko euskarria izango da EAEko administrazioek ematen den aholkularitza egokia dela zaintzeko.

Ustiategiei Aholkularitza emateko Entitateen EAEko Erregistroa ez da desegingo, baina egitura berri bat emango zaio, datu berriak jasoko ditu, erregistroa kudeatzeko sistema berria izango da, lotura berria izango du entitateen aitortzarekin eta erregistroko datuak eskuratzeko eta zabaltzeko sistema bat izango du. Gainera, erregistroaren eta entitateen aitortzaren arteko lotura banaezina ezartzen da.

Dekretu hau bat dator 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta Xedapen Orokorrak Egitako Prozeduraren 2022ko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako erregulazio onaren eta arau-kalitatearen printzipioekin.

Hala, premia- eta eraginkortasun-printzipioei dagokienez, araua justifikatuta dago araudia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamenduan xedatutakora eta 2023ko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan xedatutakora harmonizatzeko eta egokitzeko interes orokorraren arrazoiarekin; 91/2023 Dekretua herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa da.

Betetzen da proportzionaltasun-printzipioa, lehen aipatutako premiari erantzuteko bidezkoa den erregulazioa jasotzen baitu, aurrekoa indargabetzen duen testu berria prestatuta. Betetzen da segurtasun juridikoaren printzipioa, arauak printzipio hori indartzen laguntzen duela kontuan hartzen bada, koherentea baita administrazioarekin harremanak elektronikoki izateko betebeharrari buruz dagoen araudiarekin –zehazki, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearekin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamenduan ezarritako eta nahitaez bete beharreko xedapenekin–, eta saihestu egiten baitu orain arte 2006ko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretuaren egungo idazkerak eragiten duen segurtasun juridikorik eza.

Gardentasun-printzipioari dagokionez, bete egiten da, arauaren hartzailaie parte hartzeko aukera eman baitzaie aurretiko kontsultaren eta entzunaldiaren izapidearen bidez.

Azkenik, eraginkortasun-printzipioa ere betetzen da, dekretu honek ez baitu ezartzen administrazio-karga erantsirik edo beharrezkoa ez denik.

Dekretu honek 18 artikulua, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu.

Dekretu hau egiteko, kontsulta egin zaie Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoe-tako foru-aldundiei eta sektoreko erakunderik adierazgarrienei.

Hori dela eta, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik eta Gobernu Kontseiluak 2026ko otsailaren 10ean egindako bileran gaia eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta helburua.

1.– Dekretu honen xedea da nekazaritza-ustiategientzako aholkularitza-zerbitzua arautzea Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 2008ko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 91. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2.– Dekretu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-ustiategiei aholkularitza emateko ezarritako sistema indartzea, haren efizientzia lortzeko, zerbitzu-eskaintza osoa eta kalitatezkoa izateko eta nekazaritza-sektorerako berrikuntzatik eta teknologia berrien garapenetik eratorritako ezagutza transferitzeko.

2. artikulua.– Aholkularitza-zerbitzuak.

1.– Aitortutako aholkularitza-entitateek arlo hauen gaineko aholkularitza emango dute, gutxienez:

a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamenduaren 15.4 artikuluan edo erregelamendu hori ordeztzen duen arauan aipatutakoak; erregelamendu horrek Nekazaritza Politika Erkidearen esparruan estatu kideek egin beharreko plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen ditu (NPEren plan estrategikoak) – NBEF Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren eta LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren kontura finantzatuta–, eta indargabetu egiten ditu (EB) 1305/2013 Erregelamendua eta (EB) 1307/2013 Erregelamendua.

b) Monitorizazioa eta tutorizazioa nekazari gazteak nekazaritza-jardueran sartzeko proiektuetan.

c) Emakume nekazariantzako aholkularitza, nekazaritza-jarduerarako zein jarduera arrunterako, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko 2015eko urriaren 15eko 8/2015 Legean xedatutakoaren esparruan.

d) Nekazaritzako Kontabilitate Argibideetarako EAEko Sarearen kudeaketa.

e) Nekazaritza-ustiategien kudeaketa tekniko-ekonomikoa. Aholkularitza ekonomikoa eta finantzarioa. Hauek sartuko dira aholkularitza horren barnean: balantzeak eta emaitzen kontuak egitea, indize ekonomikoen interpretazioa, bideragarritasun-azterketak egitea, ekoizpen-kostuen analisiak eta kontabilitateko kudeaketa, oro har.

f) Produktu fitosanitarioen kudeaketa jasagarria.

- g) Ekoizpen ekologikorako trantsizioa.
- h) Sektoreko elkarteei aholkularitza ematea.
- i) Ustiatgien osasun-plan integralak egiteko aholkularitza ematea, bisita zoosanitarioen aholkularitza barne.

2.– Halaber, beste gai batzuei buruzko aholkularitza eman ahal izango dute, hala nola:

- a) Abeltzaintza-ustiatgietan bazkak eta mindak kudeatzea.
- b) Ustiatgietan karbono-aztarna kudeatzea.
- c) Basogintzako aholkularitza.
- d) Nekazaritza eta abeltzaintzako proiektuak idaztea.
- e) Abeltzaintzako ustiatgien plan sanitario integralak egitea.
- f) Nekazaritza Politika Erkidearen kudeaketan laguntzea.
- g) Nekazaritzako aseguruak kontratatzen eta kudeatzen laguntzea.
- h) Aholkularitza laborala, fiskala eta juridikoa ematea.
- i) Landa-aholkularitza ematea. Laboreen jarraipena egitea.
- j) Landa-koadernoak kudeatzea.
- k) Saneamendu- eta txertaketa-kanpainei laguntzea eta eustea.
- l) Ustiatgiei eta larrialdi-zerbitzuei laguntza klinikoa ematea.

3.– Aholkularitza-zerbitzuak hainbat nekazaritza-ekoizpen eta -ustiatgi motatara egokituta egongo dira.

3. artikulua.– Azpikontratazioa.

1.– Aitortutako aholkularitza-erakundeek 2. artikuluan ezarritako aholkularitza-zerbitzuren bat edo batzuk azpikontratatu ahal izango dituzte beste entitate batzuekin, baldin eta azpikontratazioak ez badu gainditzen aholkularitza-zerbitzuei dagokien urteko fakturazioaren zenbatekoaren % 40.

2.– Aholkularitza-zerbitzuren bat azpikontratatzeko zaien entitateek konpromisoa hartu behar dute aholkularitza inpartzialtasunez, osotasunez eta edozein interes pertsonal, komertzial edo bestelakoekiko independentziaz emateko, eta konpromiso hori erantzukizunpeko adierazpen batean jasoko da.

3.– Ondorio horietarako, erakunde horiei ere aplikatu egingo zaizkie entitate aitortuei 5. artikuluko a), d), e), h), j), k) eta l) apartatuetan ezarritakoak, eta haien giza taldea behar bezala kualifikatuta egon beharko da aholkularitza emateko kontratatuko den ezagutza-arloetan. Horretarako, langile horiek graduako unibertsitate-titulu ofiziala edo lanbide-kualifikazio baliokidea izango dute. Gainera, azpikontratatzeko entitateak gutxienez 3 urteko esperientzia egiaztatu beharko du aholkularitzan, edo, gutxienez, langile kualifikatuen % 30ek. Era berean, ematen duen aholkularitzan inpartzialtasuna bermatzeko, nekazaritzaren EAEko administrazioek egiten duten egiaztapen-lan oro onartuko du, aholkularitza neutrala, gardena eta objektiboa dela ziurtatzeko.

4. artikulua.– Aholkularitzaren hartzaileak.

Aholkularitzaren hartzaileak hauek izango dira:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustategiak.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-jarduera bat hasi nahi duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.
- c) Euskadiko Kooperatiben 2019ko abenduaren 20ko 11/2019 Legean ezarritako nekazaritzako kooperatibak eta erkidegoan ustiatzeko kooperatibak.
- d) Nekazaritzako makineria erabiltzeko kooperatibak (NMEK), hau da, nekazaritzarako makina edo ekipo bat edo batzuk erostea eta elkarrekin erabiltzea helburu dutenak.
- e) Ekoizle-elkarteak.
- f) Landa-garapeneko elkarteak.
- g) Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak.

5. artikulua.– Aholkularitza-entitateek aitortza eskuratzeko betekizunak.

Nekazaritzako ustategiei aholkularitza emateko entitate gisa aitortua izateko, betekizun hauek bete beharko dira:

a) Pertsona juridiko pribatua izatea, eta haren estatutuetan jasota egotea entitatearen xede soziala dela nekazaritza-ustategiei laguntza eta aholkularitza ematea.

b) Aholkularitza ematea Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko bakoitzaren lurralde-eremuan, eta, horretarako, gutxienez lokal bat izatea lurralde bakoitzean.

Lokalek beharrezkoak diren azpiegitura eta baliabide materialak izan behar dituzte, informatikoak eta telematikoak barne, aholkularitza modu presentzialean nahiz birtualean eman ahal izateko. Lokala irekita egon beharko da nekazaritza-jarduerarekin bateragarria den ordutegian.

c) Giza talde bat izatea, gutxienez honako pertsona hauek osatua:

1) Gerentzia funtzioa beteko duen pertsona bat.

2) Aholkularitzan jardungo duten 50 langile baino gehiago, honako jakintza-arlo hauetan graduko edo lanbide-kualifikazioko unibertsitate-titulu ofiziala dutenak: agronomia, albaitaritza, ingurumen- edo biologia-zientziak edo mendi-zientziak, ekonomia edo zuzenbidea. Langile horien % 50ek, gutxienez, 3 urteko esperientzia izan beharko dute aholkularitza-lanetan.

3) Administrazio-talde bat: bertan, zuzenbidearen eta zientzia juridikoen ezagutza-arloko graduko unibertsitate-titulu ofiziala duen pertsona bat egongo da, eta ekonomia-zientzien, administrazioaren eta enpresen zuzendaritzaren ezagutza-arloko graduko unibertsitate-titulu ofiziala duen pertsona bat; edo, bestela, entitateak aholkularitza ekonomiko eta juridikoko erakunde batekin lankidetzan diharduela egiaztatu behar da.

d) Aholkularitzara bideratutako langileen aldizkako eta etengabeko prestakuntza bermatzea, eta, horretarako, barne-prestakuntzako plan bat izatea. Plan horretan, adierazita egongo dira entitateak berak edo kanpoko eragile espezializatuek urtean aholkulariei emango dizkieten prestakuntza-orduak. Prestakuntza-planak atal espezifiko bat izango du, alde aurreko esperientziarik ez duten kontratupeko langileek prestakuntza-prozesu batean parte har dezaten eta haien jarduera aholkulari adituen tutoretzapean egon dadin behar den denboran. Prestakuntza-plan horretan, genero-ikuspegiari eta berdintasunari buruzko prestakuntza sartuko da.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eman ahal izatea aholkularitza.

f) Aholkularitza-plan orokor bat izatea, 6. artikuluan ezartzen den moduan.

g) Nekazaritza-ustiategiei aholkularitza ematen eta horien kudeaketa tekniko-ekonomikoa egiten gutxienez 3 urteko esperientzia egiaztatzea. Esperientzia hori aholkularitza-entitateak eduki beharko du, edo, gutxienez, entitateko langile kualifikatuen % 50ek.

h) Aholkularitza-jarduerarako erregistro-sistema informatizatu bat izatea, honako hauek jasoko dituen:

1) Aholkularitzaren data eta modua (kontsulta edo bisita).

2) Aholkularitza eman zaion pertsonaren datuak (sexuaren eta adinaren arabera bereizita).

3) Aholkularitza eman duten teknikarien datuak, sexuaren arabera bereizita.

4) Aholkularitzaren xede den ustiategiaren datu teknikoak eta ustiategiaren kokapen geografikoa.

5) Kontsultaren gaia.

6) Aholkularitza eman zaion pertsona eta ustiategi bakoitzari lotutako orduak eta kostuak, aholkularitza mota bakoitzari esleitutako tarifen arabera.

7) Titular edo aholkularitza-lan bakoitzari esleitutako tarifaren fakturak eta gastu-frogagiriak.

i) Ematen den aholkularitza inpartziala dela bermatzea. Horretarako, nekazaritzaren EAEko administrazioek egiten duten egiaztapen-lan oro onartu beharko dute, aholkularitza neutrala, gardena eta objektiboa dela ziurtatzeko.

Era berean, jarduera hauek ere egin ahal izango dituzte: zerbitzuak eskaintzeko merkataritza-jarduera edo merkatuan lortzeko zailak diren produktuak saldu eta hornitu, nekazaritza-aseguruen aholkularitza-, kontratazio- eta kudeaketa-jarduerak, bai eta ustiategietan animaliei albaitaritza-arreta egokia emateko behar diren produktu zoosanitarioak saldu, hornitu eta aplikatu ere. Jarduera horien sortzapenen batura (albaitaritza-jardunari lotutako materialen salmenta, hornidura eta aplikazioa alde batera utzita) ezingo da izan aholkularitza-zerbitzuetatik datozen diru-sarreraren % 25 baino handiagoa.

j) Aholkularien artean interes-gatazkarik ez dagoela egiaztatzea. Horretarako, entitateak hori betetzen dela bermatuko duen sistema bat ezarriko du, hala nola Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko irailaren 23ko (EB, EURATOM) 2024/2509 Erregelamenduan ezarritakoa –Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoa–.

k) Hirugarrenetik erantzukizun zibileko aseguru bat izatea, entitateari eta haren profesionali zerbitzuak ematean egindako ekintzengatik eta omisioengatik egotz dakiekeen erantzukizuna estaltze aldera.

l) Gastuak eta diru-sarrerak aholkularitza motaren arabera bereizteko aukera ematen duen kontabilitate-sistema izatea.

6. artikulua.– Aholkularitza Plan Orokorra.

Aholkularitza Plan Orokorra etengabe eguneratu beharko da, gutxienez urtean behin, eta planean aldaketa bat egiten den bakoitzean. Honako hauek jasoko ditu:

a) Zein aholkularitza-jarduketa egingo diren 2. artikuluan ezarritakoetatik, aholkularitza motaren arabera egin beharreko ekintza-plana zehaztuta, aholkularitza mota bakoitzerako egin beharreko ekintza zehatzen definizioa eta deskribapena barne.

- b) Aholkularitza-jarduketa bakoitzaren kostu zenbatetsia.
- c) Aholkularitza-zerbitzuan parte hartzen duen lantaldearen deskribapena:
- 1) Lantaldeen organigrama eta definizioa, aholkularitza-jarduketaren arabera.
 - 2) Aholkularitzako langileak definitzea: lanbide-prestakuntza, kontratazio-urtea eta sexua.
 - 3) Entitatearen Berdintasun Plana betetzeko aplikatutako neurrien zerrenda, xedapen hauek betez: Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa eta 901/2020 Errege Dekretua (901/2020 Errege Dekretua, 2020ko urriaren 13koa, Berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen eta Laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroari eta gordailuari buruzko 2010eko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena).
- d) Kontrataturako aholkulariek interes-gatazkarik ez izatearen egiaztagiria.
- e) Lokal bakoitzean zerbitzuak emango dituzten langileen gutxieneko zuzkiduraren deskribapena, aholkulariak eta administrariak zehaztuta.
- f) Entitatearen inpartzialtasunaren egiaztagiria.
- g) Barneko prestakuntza-planaren deskribapena.
- h) Aholkularitza-jardueraren erregistro-sistema informatizatuaren deskribapena, 5.h) artikuluen arabera.
- i) Kontabilitate-sistemaren deskribapena.
- j) Emandako zerbitzua autoebaluatzeko sistemaren deskribapena; sistema horretan, gutxienez, honako hauek jasoko dira: erabiltzaileek zerbitzuari aurkeztutako kexen eta iradokizunen data eta edukia eta emandako erantzunen data eta deskribapena, entitateak hartutako neurriak eta egindako hobekuntzak.
- k) Aholkularitza-jardueraren inguruan aurreikusitako urteko fakturazioa.
7. artikulua.– Aitortza eskuratzeko prozedura.
- 1.– Entitate interesdunek bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dute aitortza-eskaera, nekazaritzaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrari zuzendua, eta honako dokumentazio hau erantsiko diote:
- a) Entitatearen IFKa eta entitatearen estatutuen kopia.
 - b) Entitatearen ordezkariak sinatutako idazkia, aholkularitza eskainiko den lokalen, instalazioen eta ekipamendu materialaren deskribapenarekin.
 - c) Aurreko letran aipatutako lokalak erabilgarri daudela egiaztatzen duen titulu juridikoaren kopia digitalizatua.
 - d) Erantzukizun zibileko aseguru-polizaren kopia digitalizatua.
 - e) Eskaeraren urteari dagokion Aholkularitza Plan Orokorraren kopia digitalizatua.
 - f) 5. artikuluan ezarritako betekizunak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.– Lehen apartatuan eskatutako dokumentazioa administrazio honetan edo beste batean entregatzen denean, eta eskatzaileak berariaz deklaritzen badu dokumentu horietan ez dela

aldaketarik egin, dokumentuok aurkeztutzat joko dira. Eskatzaileak adierazi beharko du zein administrazioan aurkeztu diren eta zein unetan aurkeztu diren. Edonola ere, eskatzaileak berariaz uko egin ahal izango dio onespene inplizitu horri aitortza-eskaeran, eta, hala egiten badu, dokumentazioa aurkeztu beharko du.

3.– Nekazaritzaren arloan eskumena duen zuzendariak dagokion ebazpena eman eta jakinaraziko du, eskabidea aurkezten denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean. Dagokion epean ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, eskaera onetsitza jo ahal izango da.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren administrazio instituzionalaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira eskaera-ereduak eta prozeduraren fitxa, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/nekazaritza-ustategiei-aholkularitza/web01-tramite/eu>

5.– Entitate interesdunak espedientearen izapidetze-egoeran sartu ahal izango dira, bai eta komunikazio eta jakinarazpenetan ere. Bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira komunikazio eta jakinarazpenak, «Nire karpeta» herritarren karpeta bidez, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/micarpeta>

8. artikulua.– Aitortutako aholkularitza-entitateen betebeharrak.

Aitortutako aholkularitza-entitateek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Aholkularitza ematea, 6. artikuluan ezarritako Aholkularitza Plan Orokorrera egokituta.

b) Eskatzaile guztiei aholkularitza ematea, inolako diskriminaziorik gabe, tratu-berdintasuna, inpartzialtasuna, osotasuna eta interes-gatazkarik eza bermatuz.

c) 5.h) artikuluan ezarritako erregistro informatizatua eguneratuta edukitzea.

d) 9. artikuluan ezarritako kontrol- eta ikuskapen-jarduketak onartzea.

e) Aitortza eskuratzeko betekizunen edozein aldaketa jakinaraztea, gertatu denetik hilabeteko epean, hala nola titulartasuna aldatzea, izen soziala aldatzea, forma juridikoa aldatzea, aholkularitza eskaintzen den lokalen kokapena aldatzea edo jarduerari uztea, aldi baterako nahiz behin betiko.

Komunikazio-eredua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren administrazio instituzionalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/nekazaritza-ustategiei-aholkularitza/web01-tramite/eu>

f) Urte bakoitzeko lehen seihilekoan, gauzatutako jarduketaren txosten bat aurkeztea nekazaritzaren arloan eskumena duen zuzendaritzari. Txosten horretan, aurreko urtean egin zen aholkularitza-lanaren emaitzak, lorpenak eta zailtasunak jasoko dira, bai eta uneko urterako aurreikuspenak eta diru-sarreraren eta gastuen kontuko datuak ere.

g) 6.j) artikuluan xedatutakoari dagokionez, zerbitzuaren erabiltzaileek egindako kexa eta iradokizunei buruzko txostena aurkeztea urte bakoitzeko lehen seihilekoan nekazaritzaren arloan eskumena duen zuzendaritzari, bai eta emandako erantzunen data eta deskribapena, entitateak hartutako neurriak eta egindako hobekuntzak ere.

h) Aholkularitza ematean Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotako betebeharrak betetzea.

i) Aholkularitza-zerbitzua emateko kontratu bat egin eta sinatzea aholkularitza ematen zaion ustiategi bakoitzeko, zeina aholkularitza-entitatearen ordezkariak eta aholkularitzaren hartzaile den nekazariak sinatuko baitute. Kontratuan, hauek jasoko dira: eman beharreko zerbitzuen ezau-garriak, alderdi bakoitzaren betebeharrak eta zerbitzuen kostu zenbatetsia; eta, hala dagokionean, zehaztu egingo da diruz lagundu daitekeen zatia zenbatekoa den eta nekazariak aholkularitzaren prezioaren zer ehuneko ordaindu beharko duen.

j) Berdintasun-plan bat landu eta aplikatzea, 901/2020 Errege Dekretuaren 2. artikuluan ezarri-takoarekin bat (901/2020 Errege Dekretua, 2020ko urriaren 13koa, Berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen eta Laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroari eta gor-dailuari buruzko 2010eko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena).

9. artikulua.– Kontrolatzea eta ikuskatzea.

Nekazaritzaren arloan eskumena duen zuzendaritzak beharrezkoak diren kontrol- eta ikuskapen-jarduketak egingo ditu, aitortutako aholkularitza-entitateek 5. artikuluan ezarritako bete-kizunak eta 9. artikuluan jasotako betebeharrak betetzen dituztela eta jarduerari eusten diotela egiaztatzeko eta ziurtatzeko.

10. artikulua.– Aitortza aldatzea, aldi baterako etetea eta kentzea.

1.– Aitortutako aholkularitza-entitateek aitortzan jasotako datuetan izandako edozein aldaketa jakinarazi beharko diote nekazaritza-arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrari; zehazki, honako hauek:

- a) Titulartasuna aldatzea.
- b) Izen soziala aldatzea.
- c) Forma juridikoa aldatzea.
- d) Jarduera etetea.
- e) Aholkularitza ematen den lokalen kokapena aldatzea.

2.– Nekazaritzaren arloan eskumena duen zuzendaritzak aztertu egingo ditu jakinarazitako aldaketak, eta, gehienez hiru hilabeteko epean, aitortza-ebazpena aldatu egingo du, edo, alda-ketek 5. artikuluan ezarritako betekizunak ez betetzea eragiten badute, 7. artikuluan ezarritako prozedura abiaraziko du.

3.– Aholkularitza-entitateei aitortza emateko kontuan hartu diren 5. artikuluko betekizunetako edozein edo 8. artikuluan ezarritako betebeharrak ez betetzeak entitateen aitortza aldi baterako etetea edo kentzea ekarriko du.

Horretarako, nekazaritzaren arloan eskumena duen zuzendaritzak prozedura bat hasiko du, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera; prozedura horrek, eragindako aholkularitza-entitateari entzun ondoren, hala badagokio, aitortza aldi baterako etetea edo kentzea ekarriko du, nekazaritzaren arloan eskumena duen zuzendaritzaren titularraren ebazpen baten bidez, behar bezala arrazoituta, prozedura hasten denetik gehienez sei hilabeteko epean.

4.– Aitortutako aholkularitza-entitatearen jarduna eteteak aitortza kentzea ekarriko du. Horre-tarako, nekazaritzaren arloan eskumena duen zuzendaritzak prozedura bat hasiko du, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera; prozedura horrek, eragindako aholkula-ritza-entitateari entzun ondoren, aitortza kentzea ekarriko du, nekazaritzaren arloan eskumena

duen zuzendaritzaren titularraren ebazpen baten bidez, behar bezala arrazoituta, prozedura hasten denetik gehienez sei hilabeteko epean.

11. artikulua.– Nekazaritza Ustiategiei Aholkularitza emateko Entitateen EAEko Erregistroa.

1.– Nekazaritza Ustiategiei Aholkularitza emateko Entitateen EAEko Erregistroak (aurrerantzean, Erregistroa) izaera administratiboa du, publikoa eta bakarra da Euskal Autonomia Erkidego osorako, eta nekazaritzaren arloan eskumena duen sailari atxikita dago.

2.– Erregistroaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu horiek ematen dituzten aitortutako aholkularitza-entitateak inskribatzea.

Nekazaritzaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularra arduratuko da erregistroaz eta hura kudeatzeaz, mantentzeaz eta izaera horri dagozkion gainerako eginkizunez.

Erregistroa bitarteko elektronikoen bidez kudeatuko da oso-osorik.

12. artikulua.– Inskriba daitezkeen egintzak.

1.– Inskripzioa ez da eratzailerik izango, eta ofizioz egingo du erregistroaren arduradunak, aitortza-ebazpenetan eta aitortzak aldatu, aldi baterako eten edo kentzeko ebazpenetan oinarrituta.

Inskripzioarekin, erregistro-zenbaki bat esleituko zaio entitateari.

2.– Inskripzio-idazpena egingo da aitortza-egintzekin eta aitortzak aldatzeko, aldi baterako eteteko eta kentzeko egintzekin.

Idatzoharrak hilabeteko epean egingo dira, dagokion ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

3.– Egiten diren idatzoharrak eta esleitutako erregistro-zenbakia jakinarazi egingo zaizkie entitate interesdunei.

13. artikulua.– Erregistroaren edukia.

1.– Oinarrizko datu hauek bilduko dira Erregistroan:

a) Aholkularitza-entitateari buruzkoak:

1) Izena.

2) Xede soziala.

3) Forma juridikoa.

4) Egoitza soziala (helbidea, herria, posta-kodea).

5) IFKa, telefonoa, helbide elektronikoa, web-orria eta URLa.

6) Aitortzaren data.

7) Hala badagokio, aitortzaren aldaketaren data, edo aitortza etetearen edo kentzearen data.

8) Jarduteko lurralde-eremua.

9) Ematen dituen aholkularitza-zerbitzuak eta arlo tematikoak.

10) Dituen bulegoen zerrenda.

b) Entitate baten bulego bakoitzari dagozkionak:

- 1) Kokalekua (helbidea, udalerrria, posta-kodea, lurralde historikoa).
- 2) Telefonoa, faxa, helbide elektronikoa.
- 3) Jarduteko lurralde-eremua.
- 4) Ematen dituen aholkularitza-zerbitzuak eta arlo tematikoak.

2.– Halaber, inskripzio-idazpenak honako datu hauek jaso ahal izango ditu:

a) Entitatea osatzen duten pertsonen identifikazioa.

b) Gerentziaren identifikazioa.

c) Entitatean kontratatutako pertsonen kopurua, guztira, haien sexua eta zein bulegotan ematen dituzten zerbitzuak.

d) Aholkularitzan jarduten duten pertsonen kopurua, haien sexua, eta esperientzia dutenen ehunekoa, honako arlo hauetan taldekatuta: agronomia, albaitaritza, ingurumen- edo biologia-zientziak edo mendi-zientziak, ekonomia eta zuzenbidea.

e) Entitatean kontratatutako pertsonen kopurua, haien sexua, eta genero-ikuspegiari eta berdintasunari buruzko prestakuntza dutenen kopurua.

14. artikulua.– Erregistroko datuen publikotasuna, sarbidea eta komunikazioa.

1.– Datu hauek argitaratuko dira:

a) 13.1 artikuluan adierazitako oinarritzko datuak publikoak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuratu ahal izango dira, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/nekazaritza-ustategiei-aholkularitza/web01-tramite/eu>

2023ko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan xedatutakoaren arabera, oinarritzko datu horiek Open Data Euskadi datu irekien katalogoan sartuko dira (URLa: <https://opendata.euskadi.eus/inicio/>), eta URL horren bidez eskuratu ahal izango da informazioa.

b) 13.2 artikuluan sartutako gainerako datuak ez dira publikoak, eta tratamendu informatikoa edo estatistikoa egin ondoren soilik zabaldu ahalko dira, agregatuta. Datu horietan dauden datu pertsonalei dagokienez, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa aplikatuko da, eta datuen tratamendua ere bertan jartzen duenaren arabera egingo da. Datuak eskuratzeko, eskaera bat egingo da, eta eskabidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa bidez egin ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nekazaritza-ustategiei-aholkularitza/web01-tramite/eu>. Eskabidean, eskaeraren arrazoiak adierazi beharko dira. Edozein modutan, eskaera zehatzak egin behar dira, eta ondo mugatu behar da zer informazio eskatzen den.

Hala ere, 2025eko urriaren 1eko 39/2025 Legearen 14. artikulua eta 2023ko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretua aplikatuz bitarteko telematikoak erabiltzeko betebeharrak ez duten pertsona fisikoek bitarteko elektronikoez bestelako bitartekoen bidez eskuratu ahal izango dituzte aipatutako datuak, eta bitarteko ez-telematikoaren bidez eskatu ahal izango dute informazioa, edota ziurtagirien, ohar sinpleen, zerrenden edo beste edozein akreditazio-moduren bidez lortu ahal izango dute.

2.– Erregistroko datuak lurralde historikoetako foru-organoei, Estatuko Administrazio Orokorrari eta Europako Batzordeari jakinarazi ahal izango zaizkie, baina soilik administrazio bakoitzaren helburuetarako eta 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa errespetatuz.

15. artikulua.– Laguntzak.

Laguntzak eman ahal izango zaizkie nekazaritza-ustategiei aholkularitza-zerbitzuak ematen dizkieten entitate aitortuei.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Erregistroan inskribatutako entitateen egokitzapena.

1.– Gaur egun Erregistroan dauden aholkularitza-entitateen inskripzioek balio osoa izaten jarraituko dute, baldin eta dekretu honetan xedatutakoarekin bat badatoz. Bestela, gehienez ere hiru hilabeteko epea izango dute egokitzeko behar diren zuzenketak egiteko.

2.– Epe hori igarota, Erregistroaren arduradunak ofizioz egiaztatuko du dekretu honetan xedatutakoa betetzen den, eta, hala badagokio, kendu egingo du aitortza, eta ezeztatu egingo die inskripzioa dekretuan xedatutakoa betetzen ez duten aholkularitza-entitate inskribatuei.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Tramitatzen ari diren espedienteak.

Dekretu honek araututako moduan tramitatuko dira dekretu hau indarrean jarri aurretik hasitako espedienteak. Horretarako, egoera horretan dauden entitateek berriro aurkeztu beharko dute eskaera dekretu hau indarrean jarri eta hilabeteko epean, 7. artikuluan xedatzen den moduan. Nekazaritzaren arloko organo eskudunak betebeharrak horren berri emango die aurretiaz entitate horiei.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA.– Arauak indargabetzea.

Indargabetuta geratzen da Nekazaritza-ustategiei aholkuak emateko erakundeei buruzko 2006ko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua, bai eta arlo horretan dekretu honen aurka doan maila bereko edo beheragoko beste edozein xedapen ere.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko otsailaren 10ean.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTÍN.

NEKAZARITZA-USTIATEGIEI AHOALKULARITZA EMATEKO ENTITATEEN ETA
HORIEI AITORTZA ETA ERREGISTROAREN 2026KO OTSAILAREN 10EKO 14/2026
DEKRETUAREN ERANSKINA

AITORTZA-ESKAERAREN EREDUAREN OINARRIZKO EDUKIA

Aitortza eskatzeko inprimakia webgune honetan dago eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/nekazaritza-ustategiei-aholkularitza/web01-tramite/eu>

Hau da inprimakiaren oinarrizko edukia:

- Entitatearen datuak: izena, forma juridikoa, IFKa/IFZa, entitatearen ordezkaria, egoitza soziala, herria, posta-kodea, lurralde historikoa, telefonoa, helbide elektronikoa eta, hala badagokio, webgunea.
- Aurkeztutako dokumentazioaren zehaztapena: zer dokumentazio aurkeztu den zehaztu behar da, eta entitatearen ordezkariak sinatutako idazki bat ere aurkeztu behar da. Idazki horretan, deskribatu behar da zein lokaletan emango den aholkularitza, lokal horien gain duen titulu juridikoa eta dituen instalazioak eta ekipamendu materiala. Era berean, honako hauen kopia digitalizatuak aurkeztu behar ditu entitateak: aholkularitza emango den lokalen gaineko titulu juridikoa egiaztatzen duen dokumentua edo dokumentuak, erantzukizun zibileko aseguru-polizarena eta eskaera aurkeztu den urteko Aholkularitza Plan Orokorrena.
- Erantzukizunpeko adierazpena: 5.e) artikuluan ezarritako betekizunak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- Egiten den eskabidea.

AITORTZA ALDATZEKO EREDUAREN OINARRIZKO EDUKIA

Aitortza eskatzeko inprimakia webgune honetan dago eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/nekazaritza-ustategiei-aholkularitza/web01-tramite/eu>

Hau da inprimakiaren oinarrizko edukia:

- Entitatearen datuak: izena, forma juridikoa, IFKa/IFZa, entitatearen ordezkaria, egoitza soziala, herria, posta-kodea, lurralde historikoa, telefonoa, helbide elektronikoa eta, hala badagokio, webgunea.
- Aldatzeko egiten den eskabidea: zehaztu behar da ea aitortza aldatzeko eskaeraren arrazoia titulartasuna aldatzea, izen soziala aldatzea, forma juridikoa aldatzea, jarduera etetea edo lokalen kokapena aldatzea den.
- Aurkeztutako dokumentazioaren zehaztapena: aldaketa eragin duen arrazoiaren arabera, aurkeztu beharko dira entitatearen estatutu berrien kopia digitalizatua, IFKa/IFZa berriaren kopia digitalizatua, aholkularitza emango den lokal berriaren edo lokal berrien gain duen edo dituen titulu juridikoak egiaztatzen dituzten dokumentuen kopia digitalizatuak edo jarduera eten dela egiaztatzen duen dokumentuaren kopia digitalizatua.

JARDUERA ETETEARAREN EREDUAREN OINARRIZKO EDUKIA

Aitortza eskatzeko inprimakia webgune honetan dago eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/nekazaritza-ustategiei-aholkularitza/web01-tramite/eu>

Hau da inprimakiaren oinarrizko edukia:

- Entitatearen datuak: izena, forma juridikoa, IFKa/IFZa, entitatearen ordezkaria, egoitza soziala, herria, posta-kodea, lurralde historikoa, telefonoa, helbide elektronikoa eta, hala badagokio, webgunea.
- Jarduera eteteko egiten den eskabidea.
- Entitatearen ordezkariak sinatutako idazkia, jarduerari utzi egin zaiola eta zergatik utzi zaion justifikatuz.